

**OHIKO BATZAR NAGUSIAREN ONESPENERA
JARRI BEHARREKO ERABAKI-PROPOSAMENAK
(2025eko ekainaren 2a)**

1. EROSKI KOOP. E.REN OHIKO BATZAR NAGUSIA ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIA ERATZEA

Lehenengo puntu honetan, eta legezko betebeharra den neurrian, batzarraren deialdia iragartzeko eta jendaurrean jartzeko formalitateak bete direla egiaztatuko du Batzarreko lehendakariak. Era berean, Batzarrean bozkatuko diren erabakiei buruzko dokumentazio osoa bazkide eta delegatu guztien esku jarri dela ere egiaztatuko du.

Lehenengo puntu honetan, ez da beharrezkoa inongo erabakirik hartzea.

2. BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO HIRU BAZKIDE IZENDATZEA.

Urtero bezala, Batzarraren gai-zerrendaren lehenengo puntua legez eta estatutuz ezarritako betebeharra betetzera bideratuta dago; hau da, hiru bazkide izendatzea, Batzar honetako Akta sina dezaten, lehendakariarekin eta idazkariarekin batera, legean jasotzen den eduki osoa eta erabakiak hartzeko modua betetzen dituela egiaztatuz.

Ezer erabaki baino lehen, ohikoa den bezala, Batzar Nagusiaren aurreko bilkuraren –hots, 2024ko maiatzaren 30ean egindakoaren– akta onartuta dagoela jakinarazi da. Akta hori legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betez egin eta onartu zen.

Bilkura honen Aktarekin ere gauza bera egin ahal izateko, batzarrean dauden hiru pertsona hautatzea proposatuko da, Batzar honen akta lehendakariarekin eta idazkariarekin batera sina dezaten. Hau izango da

ERABAKIA:

Bakarra. - “Estatutu Sozialen 52. artikuluko 9. apartatuan ezarritakoaren arabera, bilera honetan dauden __ (3) __ izendatzen dira, lehendakariarekin batera Batzar honen Akta onar eta sina dezaten”.

3. KONTSEILU ERREKTOREAK ESTATUTUAK ALDATZEKO PROPOSATUTAKO PONENTZIAREKIN LOTUTA, ESTATUTU SOZIALEN PROIEKTUA ETA KOOPERATIBAREN BARNE-ARAUDIAREN PROIEKTUA AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA.

Dokumentu bereizi batean, Kontseilu Errektoreak proposaturiko Estatutu Sozialak eta Kooperatibaren Barne Araudia aldatzeko Proiektu Justifikatua aurkezten da, Kontseilu Errektoreak onartutako zuzenketa eta bozketen Araudiaren arabera –honekin batera doa–.

Gai-zerrendako puntu honetan, proposatutako aldaketak aztertuko dira, alderdi hauek zehaztuz:

- Aldaketen zergatiak
- Aldaketa egiteko erabilitako prozedura
- Batzarrean eztabaidatzeko jarraitu beharreko prozedura
- Aldaketen eta, hala badagokio, haien zuzenketa, azterketa eta bozketa

Estatutuetan eta Araudian aldaketak egiteko azterketa eta bozketa amaitzean, erabaki hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

1) “Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialen testu bategina onartzea, Batzar Nagusiak 2025eko ekainaren 2ko bilkuran onartutako aldaketak sartuz”.

2) “Kontseilu Errektoreari baimena ematea onartutako aldaketak txertatzeko fasean Estatutu Sozialen testuan behar diren aldaketa formalak edo idazketak egin ditzan, Batzar Nagusiak 2025eko ekainaren 2ko bilkuran adierazitako borondatea zuzen interpretatzeko, eta Estatutu Sozialak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan behin betiko inskribatzea lortzeko”.

Ondoren, honako hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

1) “Eroski Koop. E-ren Barne Araudiaren testu bategina onartzea, Batzar Nagusiak 2025eko ekainaren 2ko bilkuran onartutako aldaketak sartuz”.

2) “Kontseilu Errektoreari baimena ematea onartutako aldaketak txertatzeko fasean Kooperatibaren Barne Araudiaren testuan behar diren aldaketa formalak edo idazketak egin ditzan, Batzar Nagusiak 2020ko ekainaren 2ko bilkuran adierazitako borondatea zuzen interpretatzeko”.

4. SOZietateAREN 2024KO EKItALDIARI DAGozKION URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA, ETA, HALA BADAGOKIO, KONTU ETA KUDEAKETA-TXOSTEN KONTSoLIDATUAK AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA.

Kontseilu Errektoreak, urteko kontuei eta kudeaketa-txosten indibidual eta bateratuei buruzko akordio honi dagokionez, 2024ko ekitaldiari dagokion Urteko Kontu Indibidual eta Kontsolidatuak aurkezten ditu, Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 29an onartutako formulazioaren ondoren, onarpena jaso dezaten, eta jakinarazten du PricewaterhouseCoopers Auditores SL (PwC) auditoretza-enpresak behar bezala ikuskatu dituela kontu horiek.

Kontseilu Errektoreak 2024ko ekitaldian bere kudeaketan izandako gertaera nagusiak aurkeztuko ditu.

Jarraian, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

1) “Eroski Koop. E.ren Urteko Kontuak onartzea, baita 2025eko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiari dagokion Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua”.

2) “Eroski Koop. E.ren Urteko Kontu kontsolidatuak onartzea, baita 2025eko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiari dagokion Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua”.

5. 2024KO EKItALDIARI DAGOKION INFORMAZIO EZ-FINANTZARIO KONTSoLIDATUAREN ETA JASANGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOAREN EGOERA AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Kontseilu Errektoreak, informazio ez-finantzario kontsolidatuaren eta jasangarritasunari buruzko informazioaren egoerari buruzko erabaki honi dagokionez, gai-zerrendatik bereiz aurkezten du puntua, onarpena emateko, Merkataritza Kodea aldatzen duen abenduaren 28ko 11/2018 Legean, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean, eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legean ezarritakoarekin bat. Era berean, jakinarazten du AENOREk egiaztatu duela, ondorio horietarako egiaztapen-zerbitzuko emaille independente gisa.

Txostena egiteko eta egiaztapen-zerbitzuen zerbitzu-emaille independenteak egiaztapena egiteko, aipatutako 11/2018 Legeari jarraitu zaio, baita Jasangarritasunaren Arloko Informazio Korporatiboari buruzko (EB) 2022/4264 Zuzentarauari (CSRD) ere. Azken hori nahitaezkoa ez bada ere, konpainiak bete egin du Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako gomendioa.

Beraz, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

Bakarra. - “2025eko urtarrilaren 31n itxitako 2024ko ekitaldiari dagokion Informazio Ez-finantzario Kontsolidatuaren eta Jasangarritasunari buruzko Informazioaren Egoera onartzea, zeina aipatutako ekitaldiko kudeaketa-txosten kontsolidatuaren parte den”.

6. 2024KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, 2024ko ekitaldian lortutako emaitzak banatzeko proposamena egiten da. Emaitzak positiboak izan dira, 137.490.333,35 eurokoak, eta honela banatzea proposatzen da:

ERABAKIA:

1) “Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2024ko ekitaldiaren emaitza positiboen banaketa onartzea, 137.490.333,35 eurokoa, honela:

SOBERAKIN GORDINA	137.490.333,35 €
2025eko urtarrilaren 31n ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzera.	8.370.986,04 €
SOBERAKIN GARBIA (EKLren 69. artikulua)*	129.119.347,31 €
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzera	89.796.651,96 €
SOBERAKIN ERABILGARRIA	39.322.695,35 €
Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuziora (COFIP):	3.932.269,54 €
Nahitaezko Erreserba Funtsera:	19.661.347,68 €
Borondatezko Erreserba Funtsera:	15.729.078,13 €

EKL: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.

7. HEZKUNTZA ETA SUSTAPEN KOOPERATIBORAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO NAHITAEZKO KONTRIBUZIOA (COFIP) BANATZEA

Euskadiko Kooperatiben Legeak eta Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialek ezartzen duten bezala, Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuzioaren (COFIP) funtsak aplikatzeko oinarritzko ildoak aurkezten dira Batzar Nagusiaren aurrean. Beraz, COFIParen destinoari eta aplikazioari buruzko erabaki kualitatiboak hartzea proposatzen da.

Ekitaldian zehar, Kontseilu Errektorea arduratuko da oinarritzko aplikazio-ildo horiek kudeatzeaz eta exekutatzeaz, eta hurrengo Batzar Nagusian COFIParen destinoen berri emango du.

Horretarako, honako proposamen hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra.- 2024ko ekitaldiko emaitzetatik abiatuta eratutako Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Kontribuzioa aplikatzeko oinarritzko ildoak bat etorriko dira Estatutu Sozialetan ezarritako helburuekin. Ildo horiek enuntziatiboak izango dira, eta ez dituzte mugatuko kontsumitzailearen eta bazkideen prestakuntza eta informazioa, kooperatiben arteko harremanen sustapena eta hezkuntza-, kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapena.

8. EROSKI KOOP. E.REN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA TRANSAKZIO-PROPOSAMENA. AHALMENAK DELEGATZEA.

Eroski S. Coop. ("Sozietatea" edo "Eroski") hainbat motatako finantza-zorpetzea dauka harpidetuta gaur egun; besteak beste, epe luzeko eta kapital zirkulatzailerako banku-finantzaketa, senior-bonu bermatu bat, eta mendeko obligazioak. Zorpetze horren zenbateko nominala 1.125 milioi euro ingurukoa da gaur egun (aurrerantzean, «Dagoen Zorpetzea»). Eroski taldeko sozietate jakin batzuek (Eroskirekin batera, «Taldea» osatzen dute) Dagoen Zorpetze horren zordun eta/edo bermatzaile gisa jarduten dute.

Eroski finantzaketa-egitura potentzialak ebaluatzen ari da, bereziki bere finantza-kostua murrizteko eta bere zorpetze-egitura sinplifikatzeko helburuarekin, besteak beste honako hauek barne hartuz: zor-tresna berriak harpidetzea, obligazioak jaulkitzea eta/edo Dagoen Zorpetzea osorik edo partzialki nobatzea, amortizatzea eta/edo ezereztea («Transakzioa»).

Transakzioa aztertu ondoren, honako erabaki hauek jarriko dira Batzarraren onarpenera:

ERABAKIAK:**«(1) ZORRA BIRFINANTZATZEKO AUKERA: ONARPENA**

Transakzioa onartzea eta, beraz, honako hauek ere bai: (i) zor-tresna berriak sinatzea eta/edo obligazioak jaulkitzea, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 68.4 artikulua arabera; eta/edo (ii) Dagoen Zorpetzea osorik edo partzialki nobatzea, amortizatzea eta/edo ezereztea; hori guztia, Dagoen Zorpetzearen zenbateko nominala gainditzen ez duen gehieneko zenbateko bateratura arte –Transakzioaren kostua eta gastuak gehituta–, eta, betiere, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorritik.

Zor-tresna berrien eta/edo obligazioen jaulkipenaren terminoak eta baldintzak (besteak beste, tresna-mota, zenbatekoa, interes-tasa, berme pertsonalak eta/edo errealak –berme horiek Sozietatearen edozein ondasunen gainean ezarri ahal izango lirateke, haren funtsezko aktiboak barne, eta horien balioa edozein dela ere–, berrordainketa-kasuak edo amortizazio aurreratuko kasuak eta, hala badagokio, obligazioak negoziatzeko onartzea eskatuko litzatekeen merkatua eta baloreak erregistratzeko sistema) ondoren Kontseilu Errektorearen alde egiten den delegazioaren arabera zehaztuko lirateke, eta obligazioen jaulkipenean atzera egin ahal izango litzateke.

(2) AHALMENAK DELEGATZEA

Erabaki da **Kontseilu Errektoreari** ahalmenik zabalenak ematea, aipatutako akordioa garatu, interpretatu, aplikatu eta exekutatu ahal izan dezan, delegazio- edo ordezte-ahalmen espresuekin –nahiz eta aukera egon autokontratazioko, ordezkaritza anitzeko edo interes-gatazkako figurak gertatzeko–. Bereziki honako hauek egin ahal izateko behar diren ahalmenak delegatzen dira –adibide modura, eta mugatzaile izateko asmorik gabe–:

(i) Transakzioaren testuinguruan honako hauek erabakitzea:

- a. amortizatu, berrordaindu, ezereztu eta/edo nobatu beharreko Dagoen Zorpetzea; eta
- b. zein unetan gauzatu:
 - i. Dagoen Zorpetzearen amortizazioa, berrordainketa, ezerezte eta/edo nobazioa; eta
 - ii. edozein zor-tresna edo obligazio berri harpidetzea eta/edo jaulkitzea –edo, hala badagokio, horietako edozeinetan atzera egitea–, Transakzioa behar bezala gauzatzeko egokitzen jotzen diren prozesua eta mugarrak zehaztuz.

(ii) Erabaki hauek beharrezkoa den guztian zuzentzea etaosatzea, eta behar bezala gauzatzeko legez eskatzen diren eskakizun guztiak betetzea; orobat, edozein agintari, erregistro, funtzionario edo organismo –nazionala nahiz atzeritarra izan– adierazitako hutsuneak edo akatsak konpondu ahal izango ditu, eta ahalmena izango du, halaber, horretarako beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen erabakiak hartzeko eta dokumentu publiko edo pribatu guztiak egiteko.

(iii) Zor-tresna berrien eta obligazioen jaulkipenaren terminoak eta baldintzak zehaztea, akordio hauetan aurreikusten ez den guztian; orobat, haiek garatu, osatu edo zuzendu ahal izango ditu (besteak beste, tresna-mota, zenbatekoa, osorik harpidetzeko aukera, interes-tasa, berme pertsonalak eta/edo errealak –Sozietatearen edozein ondasunen gainean ezarri ahal izango lirateke, haren funtsezko aktiboak barne, eta horien balioa edozein dela ere–, berrordainketa-kasuak edo amortizazio aurreratuko kasuak eta, hala badagokio, obligazioak negoziatzeko onartzea eskatuko litzatekeen merkatua eta baloreak erregistratzeko sistema), edo, tresnak harpidetu edo obligazioak jaulki ondoren, haiek aldatzea ere.

(iv) Notario publikoaren aurrean agertzea eta eskritura publikoak edo beharrezkoak edo komenigarriak diren bestelako dokumentu edo tresnak egilestea, Transakzioaren testuinguruan beharrezkoak edo komenigarriak diren akordioak, eskritura publikoak edo bestelako dokumentu edo tresnak formalizatzeko.

(v) Transakzioaren testuinguruan beharrezkoak edo komenigarriak diren dokumentu guztiak onartzea, formalizatzea eta/edo erregistratzea, informazio-liburuxka, eskaintza-dokumentu edo negoziatzeko onartzeko dokumentu guztiak barne.

(vi) Transakzioa exekutatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren kontratu eta dokumentu publiko edo pribatu guztiak negoziatzea, sinatzea eta egilestea

(besteak beste, zor- eta/edo jaulkipen-tresna berriei buruzko dokumentazioa sinatzea; agente, kolokatzaille, trustee eta abarren rolak izendatzea...), eta, oro har, edozein dokumentu, tresna, gutun, ziurtagiri edo kontratu, barnean hartuz dokumentu horietako edozeinen berrespena, gehigarria, aldaketa, nobazioa, zuzenketa eta/edo birformulazioa, bai eta horien osagarri den edozein tresna edo dokumentu ere (Transakzioa ixteko beharrezkoa edo komenigarria den edozein ziurtagiri, gutun edo komunikazio barne).

(vii) Oro har, beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egitea, erabaki hauen efikaziarik osoena ahalbidetzeko eta haien osagarri edo lagungarri izan dadin; Transakzioaren testuinguruan beharrezkoa edo komenigarria den edozein ziurtagiri, instantzia, komunikazio-gutun, iragarki edo bestelako dokumentu publiko edo pribatu egitea, horretarako beharrezkoak edo komenigarriak diren komunikazio, adierazpen, izendapen, eskaera, kudeaketa, izapide edo bestelako egintza guztiak eginez (edozein erakunde, agintari, erregistro edo entitate publiko edo pribaturen aurrean)».

Halaber, Transakzioaren testuinguruan, honako erabaki hau jarriko da Batzarraren onarpenera:

ERABAKIA:

«Erabaki da Kontseilu Errektoreari espresuki honako ahalmen hauek ematea, Zuzenbidean ahal den guztian, eta hark (i) bere kideetako edozeinen edo zehazten den edozein ahalduen alde delegatu ahal izango ditu akordio horien bidez emandako ahalmenak, legez delega daitezkeenean; eta (ii) delegatutako ahalmen horiek garatzeko beharrezkoak diren ahalordeak eman ahal izango dizkie haiei, zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliz, Transakzioa eta horretarako beharrezkoak diren jarduketak exekutatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa eta izapide guztiak egiteko; besteak beste, honako hauek:

- (i) helburu horretarako beharrezkoak edo besterik gabe komenigarriak izan daitezkeen dokumentu publiko edo pribatu guztiak sinatzeko ahalmena, espresuki baimenduz autokontratazioaren, ordezkaritza anizkoitzaren eta/edo interes-gatazkaren figuran gerta daitezkeen kasuak; eta
- (ii) Eroski eta bere Taldeko beste edozein sozietate ordezkatzeko (edozein kontratu-baldintza edo -posiziotan) Transakzioa onartzeko, sinatzeko eta inplementatzeko beharrezkoa edo besterik gabe komenigarria den edozein erabaki eta akordio hartzeko edo sustatzeko, eta Transakzioa behar bezala jaulki eta exekutatzeko beharrezkoa den edozein akordio hartzeko».

9. ESTATUTU-, LEGE- ETA ANTOLAMENDU-XEDAPENAK

9.1. Ekarpenei buruzko erabakiak.

- a) **Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta horiek itzultzeko erabakia hartzea.**

Estatutu Sozialen 23. artikulua ahalmena ematen dio Batzar Nagusiari urtero zehazteko zein den kapitalerako ekarpenen gehieneko zenbatekoa, Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 22a baino lehen baja eman dien bazkideei itzuli beharrekoa, haien ekarpenak itzultzeko erabakiaren zain badaude.

Kooperatiba, ahal den neurrian, konpainiaren ohiko martxan normalean jasotzen diren eskaerei erantzuten saiatzen da, eta hori kooperatibaren kaudimena eta etorkizuna babestuz egiteko, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko kaudimen- eta likidezia-zenbateko bat mantentzea helburu duten irizpideak zehaztea eta neurriak hartzea, baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeak ez dezan gainditu kooperatibak xurgatzeko duen gaitasuna.

Beraz, ekarpenak itzultzerantz bideratutako zenbatekoa Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta ezartzen da.

Era berean, Batzar Nagusiak kooperatiban baja hartu duten bazkideei egindako ekarpenak itzultzea erabaki ahal izango du.

Kontseilu Errektoreak, aurkeztutako eskaeretan eta itzultzeko erabakitzeko dauden kapitaletan oinarrituta, eta Estatutu Sozialetan aipatutako eta ezarritako atalaseen azterketa kontuan hartuta, hauek proposatzen dizkio Batzar Nagusiari:

ERABAKIAK:

- 1) “11.100.000 eurotan (hamaika milioi ehun mila euro) finkatzea 2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreari 2025eko apirilaren 22ra arte eskatutako eta 2025eko maiatzaren 23a baino lehen onartutako bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa”.**
- 2) “2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 22ra arte eskatutako eta 2025eko maiatzaren 23a baino lehen onartutakoei egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, guztira 11.100.000 euroko zenbatekora arte (hamaika milioi ehun mila euro), Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.**
- 3) “2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2025eko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketak-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, eta Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.**

b) Sozietateak mendeko finantza-ekarpenak autozorro-araubidean eskuratzeko baimena

Eroskik finantza-ekarpenak dauzka jaulkita. 2002tik 2007ra bitartean merkaturatu zituen. Ekarpen horiek jaulkitzeari buruzko erabakietan, Eroskik konpromisoa hartu zuen merkatuan likidezia-maila jakin bati eusteko, kapitalaren % 10aren baliokidea den zenbatekora iritsi arte tituluak eskuratuz, existitzen diren tituluen trafikoan eskaintza eta eskari nahikoa sustatzeko xedearekin.

Konpromiso hori betetzen jarraitzeko, beharrezkoa da Batzar Nagusiak ekarpen horiek eskuratzeko bere delegazioa Kontseilu Errektorean berritzea, dela zuzenean, dela sozietate filialetako baten bidez.

Hala, eta helburu horrekin, egokitzen jotzen da baimen hori berritzea, eta, beraz, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra. - “Kontseilu Errektoreari baimena ematea 2002, 2003, 2004 eta 2007ko jaulkipenetako mendeko finantza-ekarpenak (MFEak) zuzenean edo bere taldeko edo lotetsitako beste edozein sozietateren bidez eskuratu eta zorroan mantendu ahal izan ditzan, gehienez Sozietatearen kapitalaren % 10eko zenbatekoan – ontorio hauetarako, MFEen jaulkipen guztien zenbatekoa barne–, egokitzen jotzen diren termino eta baldintzetan, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bermeekin. Sozietateak erosten dituen MFEen erosketa-prezioak ezingo du izan MFEek merkatuan izan duten azken kotizazio-prezioa edo, hala badagokio, edozein likidezia-entitatek argitaratzen duen kotizazio-prezioa baino % 50 txikiagoa edo handiagoa. Salbuespen modura, sozietateak likidezia-erakundeekin egindako edo egin beharreko edozein kontraturen erosketa-prezioa, likidezia-erakunde horiekin egindako kontratuetan edo egingo diren kontratuetan erabakitzen den erosketa-prezioaren berdina izango da. Sozietateari MFEak erosteko ematen zaion baimen honek gehienez 18 hilabeteko indarraldia izango du”.

c) Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea

Euskadiko Kooperatiben Legearen 61.4 artikulua eta Estatutu Sozialen 36.7 artikulua ezartzen dutenez, Batzar Nagusiak urtero finkatu beharko du nahitaezko ekarpen horien zenbatekoa.

Hortaz, 2025eko uztailaren 1etik aurrera sartzan diren bazkide berriek sarrerako kuota eta nahitaezko kapital gisa jarri beharko dituzten zenbatekoak zehaztu behar dira.

Aurtengo proposamena 2024ko Batzar Nagusian zehaztutako zenbatekoak mantentzea da, bai sarrerako kuotarako, bai nahitaezko kapitalerako. Zenbateko horiek 2025eko uztailaren 1etik aurrera sartzan diren bazkide guztiei aplikatuko zaizkie. Beraz, honako hau proposatuko da:

Beraz, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra. - "Lan-bazkideen ekarpenak ezartzea, sarrerako kuota gisa 2.473,86 euroko kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa 9.895,43 euroko kopurua ezarriz; beraz, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpena guztira 12.369,29 eurokoa izango da.

9.2. Funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenak ordaintzea.

Estatutu Sozialen 39 bis artikuluan ezarritakoa betez, urtero erabaki behar da funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenek ordainsaria sortzen duten ala ez. Kontabilitateko Nazioarteko Arauak indarrean jarri zirenean sortutako betebeharrak bat da erabaki hau, mendeko finantza-ekarpenak funts propioetat hartzeko.

2024ko Batzar Nagusia jada onartu zen 2025eko ekitaldiari dagozkion MFEak ordaintzea. Ekitaldi hori 2026ko urtarrilaren 31n amaituko da, eta data horretan egingo da ordainketa.

Aurten, ordainketa hori 2027ko urtarrilaren 31n amaituko den 2026ko ekitaldirako erabakitzea proposatzen da, eta ordainketa ere data horretan egitea. Hori guztia, zirkulazioan dauden MFEen jaulkipena arautzen duten baldintzetan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenen 2026ko ekitaldiari dagozkion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2027ko urtarrilaren 31n abonatu da".

9.3. Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen lan-bazkideen kapital sozialerako ekarpenak ordaintzea.

Euskadiko Kooperatiben Legearen 63. artikuluekin eta Eroskiren Estatutu Sozialen 23. artikuluekin bat, lan-bazkideen kapital sozialerako ekarpenak ordaintzea egokituko litzaieke, baldin eta Batzar Nagusiak ez badu lan-bazkide horien itzulketa diruaren legeko interesarekin onartu.

Ondorioz, honako hauek hartzea proposatzen da:

ERABAKIAK:

Lehenengoa.- 2025eko otsailaren 1ean hasi eta 2026ko urtarrilaren 31n amaitzen den aldiarekiko, % 3,25eko ordainsaria onartzea, diruaren legezko interesaren baliokidea, PFEZaren konturako atxikipenik gabea, baja hartu duten eta Batzar Nagusiak itzulketa onartu ez duen bazkideen kapitalerako ekarpenei dagokienez.

Bigarrena.- Aurreko erabakiaren arabera, adosten da haren sortzapena “2025eko ekitaldian sortutako interesetatik eratorritako ekarpenak” izeneko ekarpen bihurtuz egingo dela.

10. EROSKI KOOP. E.KO DELEGATUEN BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUDIAREN PROPOSAMENA.

EROSKI Koop. E.ko Delegatuen Batzar Nagusiaren Funtzionamendu Araudia onartzea proposatzen da, zeinak Batzarraren antolamendu- eta funtzionamendu-printzipio eta -arauak zehaztea duen xede.

Ondorioz, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra. - EROSKI Koop. E.ko Delegatuen Batzar Nagusiaren Funtzionamendu Araudiaren edukia bere osotasunean onartzea. Araudi hori onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

11. HALA BADAGOKIO, EROSKI S. KOOP.EK (sozietate xurgatzailea) CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU SOZIETATEA (sozietate xurgatua) XURGATUZ BAT-EGITEA ONARTZEA, ETA BAT-EGITEAREN BALANTZEA ONARTZEA

Egitura sozietarioa sinplifikatzearen, Eroski Koop. E.ren % 100eko partaidetza duen Cecosa Diversificación SLU sozietatea bat egitea proposatzen da, gaur egun ez baitu ez aktiborik, ez langilerik.

Ondorioz, honako hauek hartzea proposatzen da:

ERABAKIAK:**Lehenengoa.-** Xurgapen bidezko bat-egitea

EROSKI KOOP. E. sozietateak, sozietate xurgatzaile gisa, eta CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU sozietateak, sozietate xurgatu gisa, xurgapenaren bidez bat-egitea onartzea, azken horren ondarea osorik transmitituz. Sozietate xurgatua deseginda eta deuseztatuta geratuko da, likidaziorik gabe, eta bere aktibo eta pasibo guztiak blokean sartuko ditu sozietate xurgatzailean. Hori guztia, bat-egitean esku hartzen duten sozietateen administrazio-organismoek 2025eko martxoaren 25ean onartutako Bat-egite Proiektu Erkidearekin bat etorritik.

Bat-egitea gauzatzeko, guztiz partaidetuta dauden sozietateak xurgapen bidez bat egiteko modalitatea erabiliko da, merkataritza-legeriaren arabera, eta kooperatiba-legerian bat-egite bereziko modalitatea erabiliko da.

Hona hemen bat-egitean parte hartu duten sozietateen identitatea:

Sozietate xurgatzailea:

EROSKI KOOP. E. Egoitza soziala: San Agustin auzoa, zenbakirik gabe (Bizkaia, 48230). Lan Ministerioko Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiko Kooperatiben Atalak 1969ko abuztuaren 11n onartu zituen bere Estatutuak, eta gaur egun publiko bihurtutako Estatutuek zuzentzen dute, Bilboko Andrés María Urrutia Badiola notarioak 2020ko azaroaren 9an baimendutako eskrituraren arabera, 1.632 protokolo-zenbakiarekin.

Inskripzio-datuak: Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dago, XIII. liburukian, 1.812. folioan, 2003.0.088 inskripzio-zenbakiarekin, 2. idazpenarekin.

Identifikazio fiskaleko zenbakia: F-20.033.361

Sozietate xurgatua:

CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU. Egoitza soziala: San Agustin auzoa, zenbakirik gabe (Bizkaia, 48230). Epe mugagabearen erata dago, Bilboko Andrés María Urrutia Badiola notarioak 2005eko urriaren 21ean baimendutako eskrituran formalizatutako beste baten zatiketa dela-eta.

Inskripzio-datuak: Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 8. sekzioko 4.616. liburukian, 67. folioan, BI-43.951 orrian, 1. inskripzioan.

Identifikazio fiskaleko zenbakia: B-95.390.753

CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU sozietate xurgatuaren kapital soziala oso-osorik bazkide bakar batek (EROSKI KOOP. E., sozietate xurgatzailea) partaidetuta dago.

Bigarrena.- Bat-egite balantzeak

Bat-egite balantze gisa CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLUren eta EROSKI KOOP. E.ren balantzeak onartzea, biak 2025eko urtarrilaren 31n itxiak, 5/2023 Errege Dekretuaren 43. artikulua babestean. Arau horrek bat-egiteko proiektuaren dataren (martxoaren 25a) aurreko hirugarren hilabetearen lehen egunetik aurrera itxitako balantze bat egiteko betebeharra ezartzen du. Balantze horiek akta honen eranskin gisa gehitu dira.

Jasota uzten da kontuan hartzen diren bat-egite balantzeak egin ondoren ez dela bertan islatutako ondare aktiboa edo pasiboa aldatzen duen aparteko inolako egitaterik gertatu.

Hirugarrena.- Estatutu-aldaketak

Jasota uzten da sozietate xurgatzailearen Estatutu Sozialak izango direla bat-egitearen ondoriozko sozietatearen estatutu sozialak, beren hedadura osoan eta inolako aldaketarik gabe.

Laugarrena.- Bat-egitearen kontabilitate-ondorioak

Kontabilitate-ondoreetarako, azkendutako sozietatearen eragiketak 2025eko otsailaren 1etik aurrera sozietate xurgatzaileak egin dituela ulertuko da.

Bosgarrena.- Bat-egiteak industria-ekarpenetan edo prestazio osagarrietan duen eragina azkenduko diren sozietateetan eta emango diren konpentsazioetan

Jasota uzten da sozietate xurgatuan ez dagoela CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU industria-ekarpenik edo prestazio erantsirik; beraz, bat-egiteak ez du inolako eraginik izango ondore horietarako.

Seigarrena.- Eragiketaren inplikazioa hartzekodunentzat

Era berean, jasota uzten da gauzatuko den bat-egiteak ez duela hartzekodunentzat inolako inplikaziorik izango.

Zazpigarrena.- Sozietate xurgatzailean eskubide bereziak dituztenei edo kapital-ordezkariez bestelako tituluen edukitzaileei emango zaizkien eskubide edo aukerak

Jasota uzten da sozietate xurgatuan (CECOSA DIVERSIFICACIÓN SLU) ez daudela partizipazio sozial bereziak edo akzio edo partizipazioez bestelako eskubide bereziak; beraz, ez da aurreikusten bat-egitearen ondorioz halakorik sozietate xurgatzaileari ematea.

Zortzigarrena.- Araubide fiskala

Hemen proiektatu den xurgapen bidezko bat-egiteari dagokionez, parte hartzen duten sozietate guztiek espresuki beteko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan (101. artikulutik 114.era) ezarritako araubide berezia, bai eta foru-arau beraren hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ere.

Aukera hori espresuki adieraziko da, halaber, sozietate xurgatzaileko bazkideen Batzar Nagusiak eta, hala badagokio, sozietate xurgatuko bazkideen Batzar Nagusiak onartutako erabakian, baita erabaki hori formalizatzen duen eskritura publikoan ere. Erabaki horren kopia agintari fiskalei bidaliko zaie, erregelamendu bidez ezarritako komunikazio-eskakizuna betez.

Bederatzigarrena.- Enpleguaren gaineko ondorio posibleak, bai eta horrek administrazio-organoetan izan dezakeen genero-eragina eta, hala badagokio, enpresaren gizarte-erantzukizunean izan dezakeen eragina ere

Eragiketa honek ez du enpleguaren gainean inolako ondoriorik.

Era berean, sozietate xurgatzailearen administrazio-organoa ez da aldatuko, eta eragiketa honek ez dio eragingo, eta ez du genero-inpakturik sortzen bere osieran.

Azpimarratzekoa da bat-egite honetan ez dela inolako eraginik detektatu enpresaren gizarte-erantzukizunaren arloan.

12. ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEA

Bazkideei arau-hauste astun edo oso astunengatik irekitako diziiplina-espedienteetan ezarritako zigorren kontrako errekurtsuak ebatzen dituen kooperatibako organoa da Errekurtsu Batzordea, eta amaiera ematen dio barne-bideari.

Bertako kide titularrak eta ordezkioak Batzar Nagusian hautatzen dira, bozketa sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan beharko dute, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak (antzinatasuna, kooperatibako esperientzia eta egokitasuna) bete beharko dituzte; gainera, beharrezkoa izango da hautagaiek bestelako kargu sozialik ez izatea.

Urtero, lan-bazkideen hiru ordezkari eta bazkide kontsumitzaileen bi ordezkari osatzen duten organo honen erdia berritu behar da. Kasu honetan, bi hautagai izendatu behar dira –bat lan-bazkideen artean eta beste bat bazkide kontsumitzaileen artean–, Batzarra egingo den lokalera sartu aurretik egingo den bozketa sekretu bidez. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko dena:

ERABAKIA:

“Egindako bozketaren ondorioz, hauek dira Errekurtso Batzorderako izendatuak, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako”

<i>Kontsumo-bazkideak</i>	<i>Lan-bazkideak</i>
<i>Titularra</i>	<i>Titularra</i>
<i>Ordezkoa</i>	<i>Ordezkoa</i>

13. JAGOLETZA-BATZORDEA BERRITZEA

Jagoletza Batzordea organo gainbegirale eta fiskalizatzailea da, Kooperatibako organo sozialek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzen duena. Euskadiko Kooperatiben Legeak bere funtzioak behar bezala betetzeko behar diren ahalmen guztiak esleitzen dizkio organo honi, kooperatibaren kudeaketan eta hirugarrenen aurrean duen ordezkartzan inoiz kalterik eragin gabe, salbu eta Administrazio-organismoaren edo bertako kideren baten kontra egindako aurkaratze judizialen edo kide horien kontratuen amaieren kasuetan.

Organo horrek kooperatibaren bizitza soziala zuzena eta gardena dela bermatzen die bazkideei, eta, beste organo batzuetarako hautagaien kasuan bezala, proposatutako hautagaien profila egokia dela egiaztatzen da, bete behar dituzten erantzukizunen arabera; beharrezkoa da, halaber, pertsona horiek beste kargu sozialik ez izatea. Organoa osatzen duten hiru kideetatik bi bazkide kontsumitzaileen komunitatekoak dira, eta bat lan-bazkideen komunitatekoa.

Bi urtez behin oso-osorik berritu behar da Jagoletza Batzordea. Bazkide kontsumitzaileen artean bi hautagai izendatu behar dira, eta lan-bazkideen artean bat. Bozketa sekretua Batzarra egingo den lokalera sartu baino lehen egingo da. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko dena:

ERABAKIA:

“Hauteskundeetan izandako emaitzaren ondorioz, hauek dira Jagoletza Batzorderako izendatuak, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako”:

Bazkide kontsumitzaileak	Lan-bazkideak
Titularra	Titularra
Ordezkoa	Ordezkoa

14. KONTSEILU SOZIALA BERRITZEA

Aurten, Kontseilu Sozialaren erdia berritu behar da. Organo hori lan-bazkideek osatzen dute soil-soilik. Gogoratu Kontseilu Sozialaren funtzioen artean Kontseilu Errektorea lanari buruzko alderdi guztiei buruz informatzea, aholkatzea eta kontsultatzea dagoela, eta kasu bakoitzean jarrera arrazoitu bat hartu behar duela.

Hauteskunde-prozesua ohikoa izan da; alegia, bi itzuliko bozketa egin da lan-bazkide guztien artean. Prozesu bikoitz hori amaitutakoan, egindako bozketen arabera ordenatzen ditu hautagaiak Kontseilu Errektoreak, eta Batzarrari zerrenda bakarra proposatzen dio. Emaitzen arabera, boto gehien jaso duten hautagaiak titular gisa agertuko dira zerrenda horretan, eta hurrengoak ordezkoko gisa. Horrela, Batzar Nagusia izango da erabakia berretsiko duena, hautaketa-prozesuari behin betiko balioa emanez.

Horrenbestez, eta Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen duen bezala, lan-bazkideek Kontseilu Soziala berritzeko egindako bozketetatik ateratako hautagai-zerrenden eta ordezkoen hauteskunde-emaitza berresteko aurkezten du Kontseilu Errektoreak, hautagaitza bakoitzak jasotako boto-kopuruaren arabera ordenatuta:

Zonak	TITULARRA		ORDEZKOA	
	IZENA	ZENTROA	IZENA	ZENTROA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				

15. HARTUTAKO ERABAKIAK PUBLIKO EGITEKO AHALMENAK ESKUORDETZEA.

Gai-zerrendako puntu honetan, Batzar Nagusiak bere ahalmenak Kontseilu Errektoreari eskuordetzeko ohiko akordio bat proposatzen da, lege- eta estatutu-betebeharrak hobeto betetzeko xedez. Hori horrela, edozein kidek egiletsi ahal izango du eskritura publikoa, Batzar honek hartutako edozein erabaki jasotzen duena, eta interesa duen agintari, administrazio eta erregistro ororen aurrean egiaztatu ahal izango du.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

“Kontseilu Errektoreko kide bakoitzari eta letradu aholkulariari eskuordetzea, horietako edozeinek, nahieran, komenigarriak edo beharrezkoak diren garapen- edo betearazpen-jarduketak edo -kudeaketak erabaki eta egin ahal izan ditzan, Batzar Nagusiak hartutako erabakiak ahalik eta osoen exekutatzeari lortzeko, dagozkion kontratu eta dokumentuak komenigarritzat jotzen dituen klausula eta baldintzekin sinatzea barne, bai eta interpretatzeko ere, erabaki horiek zuzentzea eta osatzea, eta berak hautatutako notarioaren aurrean agertzea eta jendaurrean jartzea, horretarako dagozkion eskritura publikoak egiletsiz, baita akatsak zuzentzeko edo argitzeko ere, eta akordioak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egitea, legez eska daitezkeen dokumentu guztiak erantsiz, bai eta gordailutzea eta/edo inskripzioa lortu arte behar diren kudeaketa guztiak egin ditzan ere, inskripzio partzialaren eskaera barne, erregistro interesdunetan, horiek edo beste edozein organismo edo agintarik jaulkitako ahozko edo idatzizko kalifikazioak ikusita”.

16. GALDERAK ETA ESKAERAK

Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialak aldatzea justifikatzen duen txostena

(Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 29an onartua)

AURKIBIDEA

I. INTRODUCCIÓN 2

1. ARTICULO 23. CONSECUENCIAS ECONÓMICAS DE LA BAJA. 2

2. ARTICULO 38. CONTRIBUCIÓN OBLIGATORIA PARA LA EDUCACIÓN Y PROMOCIÓN COOPERATIVA Y
OTROS FINES DE INTERÉS PÚBLICO (COFIP). 2

II. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS SOCIALES..... 3

I. SARRERA

Justifikazio-txosten honetan, artikulua zenbaki-ordenan dituela aurkezten dira Eroski Koop. E.ko Kontseilu Errektoreak Barne Araudirako proposatu dituen Estatutu Sozialetak, 2025eko ekainean egingo den Batzar Nagusian tratatuko diren moduan.

1. 23. ARTIKULUA. BAJAREN ONDORIO EKONOMIKOAK.

- Legeak eta Estatutuek kapitalerako ekarpenen itzulketa baldintzarik gabe errefusatzeko aukera ezartzen duten arren, Estatutuetan betebeharrak batzuk zehazten dira, legea bera baino zorrotzagoak, emaitzak banatzeko erabakiak mugatzen dituztenak baldin eta Batzarrak ez badu erabakitzen itzultzeko eskatu diren ekarpen guztiak itzultzea.

Kooperatiba-proiektuaren erakargarritasuna areagotzearen, emaitzak banatzeko irizpide ez hain murriztaile batekin, betebeharrak hauek kendu dira:

- i) Emaiza erabilgarriaren erdia Nahitaezko Erreserba Funtsean sartzeko betebeharra.
- ii) Lan-bazkideen erretornurik ez adosteko betebeharra.

Era berean, Eroskiren Estatutu Sozialen oraingo idazketak ezartzen du ezen, Batzar Nagusiak ez badu erabakitzen itzultzeko eskatu diren ekarpen guztiak itzultzea, COFIPa laguntza-helburuetan baino ez dela erabiliko; eta ez du aukerarik ematen Batzarrak unean-unean aintzat har litzakeen COFIParen helbururako aukera gehiago izateko. Horregatik, proposatzen da

- iii) COFIPa laguntza-gaietara soilik bideratzeko muga ezabatzea

2. 38. ARTIKULUA. HEZKUNTZA ETA SUSTAPEN KOOPERATIBORAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO NAHITAEZKO KONTRIBUZIOA (COFIP).

Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikulua onartzen duen moduan, artikulua berak ezartzen duen interes publikoko helbururen batera bideratuko da COFIPa, Estatutuek edo Batzar Nagusiak ezarritako oinarritzko ildoak aplikatuz.

Idazketa berriaren helburua da COFIParen helburuak Kooperatiben Legearen 72. artikuluan ezarritako guztiekin parekatzea, COFIParen helbururako aukera gehiago eskainiz. Artikuluaren idazketa egokitu egin da, legeak ezarritako helburu guztietara zabalduz, lege horren 72. artikuluen 6. apartatua barne –berriki onetsia izan da apartatu hori–.

Era berean, kendu egin da uneko ekitaldiko COFIParen Inbertsio eta Gastuen Plana Batzar Nagusiari aurkezteko betebeharra, ez baita beharrezkoa. Izan ere, Legeak hori aplikatzeko oinarritzko ildoak onartzea eskatzen du, eta Kontseilu Errektoreari haren kudeaketa ahalbidetzen zaio.

Ondoren, aldaketa horien proposamen justifikatua egingo da.

II. ESTATUTU SOZIALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Kooperatibaren Batzar Nagusiari honako hau proposatzen zaio:

ERABAKIA:

Estatutu Sozialetako 23. eta 38. artikulua aldatzea onartzea.

Aurrerantzean, Estatutu Sozialetako artikulua horiek lehengo idazketa espresuki indargabetuta izango dute, eta hau izango da beren edukia, hitzez hitz (*“proposatutako testu”* gisa jasotako terminoetan):

EGUNGO TESTUA	PROPOSATUTAKO TESTUA
23. artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak. Bat. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkideak edo bere kausadunak alderdi soziala itzultzeko eskubidea izango dute, eta horren balioa Batzar Nagusiak onesten duen baja-eskaeraren datako ekitaldiari dagokion balantzearen gainean kalkulatu da. Bi. Lan-bazkideak kooperatiban baja hartzeko dituen arrazoiak arabera, Kontseilu Errektoreak haren nahitaezko ekarpenen gainean kenkari-ehunekoak aplikatu ahal izango ditu, besteak beste: a) Kanporatzeagatiko baja denean, % 30 artekoa. b) Arrazoitu gabeko baja denean, % 20 artekoa. c) Baja arrazoitua edo heriotzagatiko baja denean, ezingo da kenkaririk aplikatu. d) Ezingo da kenkaririk aplikatu bazkideen borondatezko ekarpenetan. Ehuneko horiek aplikatzerakoan, Kontseilu Errektorea saiaturik da ehuneko horiek bazkideengan duten eragin ekonomikoa antzeko egoeretako kenkarien parekoa izan dadin. Hiru. Batzar Nagusiak urtero ezarriko du, ekitaldi bakoitzerako, baja eragindako bazkideei itzuli beharreko kapital-ekarpenen gehieneko zenbatekoa. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak ezingo ditu onartu honako hau egiten duten bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa-eskaerak: a) Kooperatibaren kapital soziala Kontseilu Errektoreak une bakoitzean zehazten duen kaudimen-atalasearen azpitik geratzen da, edo atalase hori ez da gainditzen. b) Dagozkion ordainketen ondorengo likidezia Kontseilu Errektoreak zehaztutako likidezia-	23. artikulua. Bajaren ondorio ekonomikoak. Bat. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkideak edo bere kausadunak alderdi soziala itzultzeko eskubidea izango dute, eta horren balioa Batzar Nagusiak onesten duen baja-eskaeraren datako ekitaldiari dagokion balantzearen gainean kalkulatu da. Bi. Lan-bazkideak kooperatiban baja hartzeko dituen arrazoiak arabera, Kontseilu Errektoreak haren nahitaezko ekarpenen gainean kenkari-ehunekoak aplikatu ahal izango ditu, besteak beste: a) Kanporatzeagatiko baja denean, % 30 artekoa. b) Arrazoitu gabeko baja denean, % 20 artekoa. c) Baja arrazoitua edo heriotzagatiko baja denean, ezingo da kenkaririk aplikatu. d) Ezingo da kenkaririk aplikatu bazkideen borondatezko ekarpenetan. Ehuneko horiek aplikatzerakoan, Kontseilu Errektorea saiaturik da ehuneko horiek bazkideengan duten eragin ekonomikoa antzeko egoeretako kenkarien parekoa izan dadin. Hiru. Batzar Nagusiak urtero ezarriko du, ekitaldi bakoitzerako, baja eragindako bazkideei itzuli beharreko kapital-ekarpenen gehieneko zenbatekoa. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak ezingo ditu onartu honako hau egiten duten bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa-eskaerak: a) Kooperatibaren kapital soziala Kontseilu Errektoreak une bakoitzean zehazten duen kaudimen-atalasearen azpitik geratzen da, edo atalase hori ez da gainditzen. b) Dagozkion ordainketen ondorengo likidezia Kontseilu Errektoreak zehaztutako likidezia-

atalasearen azpitik geratzen da, edo, atalase hori ez da gainditzen. Lau. Batzar Nagusiak ez badu erabakitzen itzultzeko eskatu diren ekarpen guztiak itzultzea, betebeharrak ezartzen dira: Kooperatibak bere emaitza erabilgarriaren ordia Nahitaezko Erreserba Funtsean sartu behar du. - Kooperatibak ezin du lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaririk adostu. - Kooperatibak ezin du lan-bazkideen erretornurik adostu. - Emaizak garbiak (aurreko ekitaldietako galerak konpentsatu ondorengo emaitzak) edo sortzapena gauzatzeko behar adina erreserba erabilgarri izanez gero, diruaren legeko interesa baino beheragoko ordainsaria sortzea erabakitzen badu Kooperatibak Batzarrak onartu gabeko itzulketako ekarpenen alde, ekarpen horien balio nominala hobetuko du gutxienez interes horren eta sortutakoaren arteko zenbatekoaren baliokidearekin, lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaria eman aurretik. Ondorio bera izango da horren inguruan erabakirik hartzen ez bada. Salbuespen modura, Eroski Fundazioan sartutako zenbatekoaz gain, COFIPA helburu asistentzialetan baino ez da erabiliko eta zenbateko hori Kontseilu Errektoreak kudeatuko du. Itzulketa erabaki gabeko ekarpenen titularrek eskubidea izango dute urtero informatuak izateko beren ekarpenen itzulketari eta ordainketari eragiten dieten alderdiei buruz, eta Kontseilu Errektoreak hartzen dituen bestelako erabakiei buruz ere bai. Bost. Batzar Nagusiak itzulketa onesten dien ekarpenen zenbatekoa Kontseilu Errektoreak banatuko du bazkide ohien artean, honako arau hauen arabera: a) Zenbateko horren ehuneko bat adin jakin bat gainditzen duten lan-bazkide ohien kapitalerako ekarpenen itzulketari erantzuteko erabiliko da, adin handienetik txikienerako eta urte bakoitzeko arteko ordenari jarraituz, haien ekarpenen zenbatekoaren proportzioan, eta heriotza, Ezintasun Absolutua edo Erabateko Ezgaitasun Iraunkor Kualifikatua (EEIK) izandako bazkide ohien kapitalari egindako ekarpenen proportzioan. b) Gainerako zenbatekoa, Batzarrak onartutako	atalasearen azpitik geratzen da, edo, atalase hori ez da gainditzen. Lau. Batzar Nagusiak ez badu erabakitzen itzultzeko eskatu diren ekarpen guztiak itzultzea, betebeharrak ezartzen dira: - Kooperatibak ezin du lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaririk adostu. - Emaizak garbiak (aurreko ekitaldietako galerak konpentsatu ondorengo emaitzak) edo sortzapena gauzatzeko behar adina erreserba erabilgarri izanez gero, diruaren legeko interesa baino beheragoko ordainsaria sortzea erabakitzen badu Kooperatibak Batzarrak onartu gabeko itzulketako ekarpenen alde, ekarpen horien balio nominala hobetuko du gutxienez interes horren eta sortutakoaren arteko zenbatekoaren baliokidearekin, lan-bazkideen kapital sozialera egindako ekarpenen ordainsaria eman aurretik. Ondorio bera izango da horren inguruan erabakirik hartzen ez bada. Itzulketa erabaki gabeko ekarpenen titularrek eskubidea izango dute urtero informatuak izateko beren ekarpenen itzulketari eta ordainketari eragiten dieten alderdiei buruz, eta Kontseilu Errektoreak hartzen dituen bestelako erabakiei buruz ere bai. Bost. Batzar Nagusiak itzulketa onesten dien ekarpenen zenbatekoa Kontseilu Errektoreak banatuko du bazkide ohien artean, honako arau hauen arabera: a) Zenbateko horren ehuneko bat adin jakin bat gainditzen duten lan-bazkide ohien kapitalerako ekarpenen itzulketari erantzuteko erabiliko da, adin handienetik txikienerako eta urte bakoitzeko arteko ordenari jarraituz, haien ekarpenen zenbatekoaren proportzioan, eta heriotza, Ezintasun Absolutua edo Erabateko Ezgaitasun Iraunkor Kualifikatua (EEIK) izandako bazkide ohien kapitalari egindako ekarpenen proportzioan. b) Gainerako zenbatekoa, Batzarrak onartutako
---	--

zenbatekoraino, kapitalerako ekarpenak itzultzea eskatzen duten bazkide ohien artean banatuko da, aurreko a) apartatuko lan-bazkideak barne, baldin eta haien ekarpenak ez badira erabat itzuli, bazkide gisa baja emandako urteko antzinasun handiagotik txikienera eta urte bakoitzeko ekarpenen proportzioan. Kontseilu Errektoreak hauek ezarriko ditu: - Batzar Nagusiak onartutako itzuli beharreko zenbatekoaren %, a) apartatuko bazkideentzat erabiliko dena. - Lan- bazkideek aurreko a) apartatuko kolektiboaren barruan sartzeko izan behar duten gutxieneko adina. Ordainketa egiteko epea baja-kalifikazioaren arabera eta ekitate-irizpideen arabera egingo da; epe hori ezingo da izan bost urtetik gorakoa, Batzar Nagusiaren itzulketa-erabakiaren egunetik aurrera. Epe horretan, ordaindu gabeko ekarpenak diruaren legezkotasunaren adinako urteko interesa jasoko du, eta ezingo da eguneratu. Itzulketa-erabaki horretatik aurrera, zor den zenbatekoa ez da kapital sozialtzat hartuko. Sei. Kontseilu Errektorearen erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak errekurtsioa jarri ahal izango du Errekurtsio Batzordearen aurrean, erabakiaren berri duenetik berrogei eguneko epean, eta Errekurtsio Batzordeak hiru hilabeteko gehieneko epean ebatzi beharko du.	zenbatekoraino, kapitalerako ekarpenak itzultzea eskatzen duten bazkide ohien artean banatuko da, aurreko a) apartatuko lan-bazkideak barne, baldin eta haien ekarpenak ez badira erabat itzuli, bazkide gisa baja emandako urteko antzinasun handiagotik txikienera eta urte bakoitzeko ekarpenen proportzioan. Kontseilu Errektoreak hauek ezarriko ditu: - Batzar Nagusiak onartutako itzuli beharreko zenbatekoaren %, a) apartatuko bazkideentzat erabiliko dena. - Lan- bazkideek aurreko a) apartatuko kolektiboaren barruan sartzeko izan behar duten gutxieneko adina. Ordainketa egiteko epea baja-kalifikazioaren arabera eta ekitate-irizpideen arabera egingo da; epe hori ezingo da izan bost urtetik gorakoa, Batzar Nagusiaren itzulketa-erabakiaren egunetik aurrera. Epe horretan, ordaindu gabeko ekarpenak diruaren legezkotasunaren adinako urteko interesa jasoko du, eta ezingo da eguneratu. Itzulketa-erabaki horretatik aurrera, zor den zenbatekoa ez da kapital sozialtzat hartuko. Sei. Kontseilu Errektorearen erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak errekurtsioa jarri ahal izango du Errekurtsio Batzordearen aurrean, erabakiaren berri duenetik berrogei eguneko epean, eta Errekurtsio Batzordeak hiru hilabeteko gehieneko epean ebatzi beharko du.
38. artikulua. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa. Bat. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa edo COFIPa Kooperatibaren Balantzeko Pasiboan beste partidetatik bereizita ageriko da, izaera banaezinarekin eta enbargaezinarekin, bere helburuak betetzeko hartzen dituen zorrenatik ez bada. Batzar Nagusiak COFIPa aplikatzeko oinarritzko gidalerroak onartuko ditu urtero, Estatutu Sozialetako 23. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. Kontseilu Errektorea arduratuko da gidalerro orokor horiek kudeatzeaz eta exekutatzeko, eta Batzar Nagusiari funtsen helburuen berri emango dio, haren onespena jasotzeko.	38. artikulua. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa. Bat. Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa edo COFIPa Kooperatibaren Balantzeko Pasiboan beste partidetatik bereizita ageriko da, izaera banaezinarekin eta enbargaezinarekin, bere helburuak betetzeko hartzen dituen zorrenatik ez bada. Batzar Nagusiak COFIPa aplikatzeko oinarritzko ildoak onartuko ditu urtero. Kontseilu Errektorea arduratuko da gidalerro orokor horiek kudeatzeaz eta exekutatzeko, eta Batzar Nagusiari funtsen helburuen berri emango dio, haren onespena jasotzeko.

COFIPa jarduera kontsumeristak eta komunitarioak garatzeko erabiliko da nagusiki. Aipatutako helburuen artean, COFIPari esleitutako kopuruak ekimen hauek sustatzeko, egiteko eta finantzatzeko erabiliko dira nagusiki: - kontsumitzailearentzako prestakuntza eta informazioa - kooperatiben arteko harremanen sustapena, eta batez ere kontsumo-kooperatiben artekoa, sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko edonolako laguntza-jardueretarako sortutako erakundeen bitartez, kooperatiben federazio eta konfederazioak eta arlo horretako bestelako lankidetzak-formak barne; - hezkuntza-, kultura- eta lanbide-arloko sustapena, batez ere alor kontsumeristakoa eta ingurune eta ingurumenarekiko konpromisokoa; eta - solidaritatea eta laguntza-sustapena. Ekimen horiek garatzeko, Batzar Nagusiak adostu ahal izango du funtsak Eroski Fundazioari edo interes orokorreko jarduerak aurrera eramaten dituzten beste erakunde batzuei ematea, baldin eta erakunde horiek funtsak artikulatu honetan	COFIPari esleitutako kopuruak ekimen hauek sustatzeko, egiteko eta finantzatzeko erabiliko dira nagusiki: - kontsumitzailearentzako prestakuntza eta informazioa - bazkideen eta langileen prestakuntza eta hezkuntza kooperatibismoari, jarduera kooperatiboari eta lanpostuarekin zerikusirik ez duten beste gai batzuei buruz. - kooperatiben arteko harremanak sustatzea, sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko edonolako laguntza-jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeagatiko gastuak estaltzea barne. Kooperatiben arteko harremanen sustapen hori sustapenerako, laguntzarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko edonolako laguntza-jardueretarako sortutako erakundeen bitartez gauzatu ahal izango da, kooperatiben federazio eta konfederazioak eta arlo horretako bestelako lankidetzak-formak barne; - Hezkuntza-, kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapena, bai eta kooperatibismoaren ezaugarrien zabalkundea ere kooperatiba garatzen den gizarte-ingurunean eta, oro har, gizartean. - Euskararen erabilera sustatzea - Enpresa kooperatibo berriak sustatzea euskal kooperatiba-mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati diru-ekarpenak eginez. - Bazkideen eta langileen prestakuntza eta hezkuntza, sozietate kooperatiboetan emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko politika eraginkorra sustatzeko. - Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzeko 7/2024 Legearen 72. artikulua 6. apartatua aipatutakoak. Ekimen horiek garatzeko, Batzar Nagusiak adostu ahal izango du funtsak Eroski Fundazioari edo interes orokorreko jarduerak aurrera eramaten
--	---

adierazten diren helburuekin erabiltzera konprometitzen badira. Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurrez ikusitako ekintzak egiteko bidera ditzake funtsak. Bi. Esleipen hauekin eratuko da Funts hori: a) Batzar Nagusiak Euskadiko Kooperatiben Legearen 70. artikuluan eta Estatutu hauetako 44. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen dituen soberakin garbien gaineko ehunekoa. b) Kooperatibak bere bazkideei diziplina-bidez ezartzen dizkien zehapenak. c) Batzar Nagusiak bere iritzira soberakinen kargura erabakitzen dituen zenbatekoak. d) Bere helburuak betetzeko bazkideengandik edo hirugarren batzuegandik jaso diren dirulaguntzak, emariak eta bestelako laguntzak. Hiru. Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio, onar ditzan, indarrean dagoen ekitaldirako Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioaren Inbertsio eta Gastuen Plana eta aurreko Ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa, kontu-egiaztapena egin eta gero. Ekitaldi bakoitzean Funtsean egon diren gastuak edo sarreraren aplikazioak justifikatu beharko dira. Lau. Aipatutako COFIParen zenbateko aplikatu gabea irabazi-asmorik gabeko erakundeei entregatuko zaie, Estatutu hauetan ezarritako interes publikoko helburuetarako erabil ditzaten, zuzkidura onartu den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian.	dituzten beste erakunde batzuei ematea, baldin eta erakunde horiek funtsak artikulua honetan adierazten diren helburuekin erabiltzera konprometitzen badira. Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurrez ikusitako ekintzak egiteko bidera ditzake funtsak. Bi. Esleipen hauekin eratuko da Funts hori: a) Batzar Nagusiak Euskadiko Kooperatiben Legearen 70. artikuluan eta Estatutu hauetako 44. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen dituen soberakin garbien gaineko ehunekoa. b) Kooperatibak bere bazkideei diziplina-bidez ezartzen dizkien zehapenak. c) Batzar Nagusiak bere iritzira soberakinen kargura erabakitzen dituen zenbatekoak. d) Bere helburuak betetzeko bazkideengandik edo hirugarren batzuegandik jaso diren dirulaguntzak, emariak eta bestelako laguntzak. Hiru. Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkeztuko dizkio, onar ditzan, indarrean dagoen ekitaldirako Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa aplikatzeko oinarritzko ildoak eta aurreko Ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa, kontu-egiaztapena egin eta gero. Ekitaldi bakoitzean Funtsean egon diren gastuak edo sarreraren aplikazioak justifikatu beharko dira. Lau. Aipatutako COFIParen zenbateko aplikatu gabea irabazi-asmorik gabeko erakundeei entregatuko zaie, Estatutu hauetan ezarritako interes publikoko helburuetarako erabil ditzaten, zuzkidura onartu den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian.
---	---

Eroski Koop. E-ren Barne Araudia aldatzea justifikatzen duen txostena

(Kontseilu Errektoreak 2025eko apirilaren 29an onartua)

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	2
50.ARTIKULUA COFIP. XEDAPEN OROKORRAK.....	2
II. KOOPERATIBAREN BARNE-ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENA	3

I. SARRERA

Justifikazio-txosten honetan, artikulua zenbaki-ordenan dituela aurkezten dira Eroski Koop. E.ko Kontseilu Errektoreak Barne Araudirako proposatu dituen aldaketak, 2025eko ekaineko Batzar Nagusian tratatuko diren moduan.

50. ARTIKULUA. COFIP. XEDAPEN OROKORRAK.

Estatutu Sozialetan jasotzea proposatzen den bezala (38. artikulua idazketa berria), eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen arabera, COFIPa artikulua berak ezartzen duen interes publikoko helbururen batera bideratuko da, Estatutuetan ezarritako oinarritzko ildoak aplikatuz.

Idazketa berriak zabaldu egiten ditu COFIPa erabiltzeko alternatibak, eta Kooperatiben Legean araututako guztiak jasotzen ditu. Barne Araudiaren 50. artikulua Estatutu Sozialen 38. artikulura bideratzen du COFIParen helburuak zehazteko.

II. KOOPERATIBAREN BARNE-ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENA

Kooperatibaren Batzar Nagusiari honako hau proposatzen zaio:

ERABAKIA:

Kooperatibaren Barne Araudiaren 50. artikulua aldaketa onartzea. Lehengo idazketa espresuki indargabetuta geratuko da, eta, aurrerantzean, hau izango da bere edukia, hitzez hitz (*“proposatutako testu” gisa jasotako terminoetan*):

EGUNGO TESTUA	PROPOSATUTAKO TESTUA
50. artikulua. COFIP. Xedapen orokorrak Bat. Estatutu Sozialako 23. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, xede hauek dituzten ekimenak sustatzeko, gauzatzeko eta finantzatzeko erabiliko da batik bat COFIPa: kontsumitzailea prestatzea eta informatzea; solidaritatea eta laguntza sustapena; hezkuntza, kultura eta lanbide sustapena; batik bat arlo kontsumeristan; ingurunearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa; eta kontsumoko kooperatiben, kooperatiben eta beste lankidetzaren mota batzuen arteko sustapen, laguntza, zuzendaritza erkide edo elkarri laguntzeko beste edozein jardura motatarako sortutako erakundeen bitartez egindako kooperatiben arteko harremanen sustapena. Bi. COFIPa Kontseilu Errektoreak administratuko du. Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzetara bideratu ahal izango ditu funtsak.	50. artikulua. COFIP. Xedapen orokorrak Bat. COFIPa Estatutu Sozialen 38. artikuluan ezarritako ekimenak bezalakoak sustatu, gauzatu eta finantzatzeko erabiliko da batik bat. Bi. COFIPa Kontseilu Errektoreak administratuko du. Batzorde Kontsumerista Lokala duten udalerrietan, Kontseilu Errektoreak bere Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzetara bideratu ahal izango ditu funtsak.